


Vikingoen sorterrira



Egilea: Xabier Mendiguren

Bilduma: Literatura 293

Salneurria: 20,75 €

Orrialde kopurua: 300

Kaleratze data: 2010eko urtarrila

Aita ezezagun eta urrundik miretsiaren bila doan neska; ebakuntza larri baten atarian, bere bizitzako amodio sekretua kontatzera doan emakume heldua; familia-giro itogarri batean bere arrebarekiko obsesiotik nola askatu ez dakien mutila; parkin batean nahi gabe ume bat zapaldu ondoren, erruaren zamari aurre egin behar dion gizon gaztea...

Samurrak eta gordinak dira liburu honetako istorioak; pertsona baten une bateko zalantzan bizialdi oso baten kontraesanak biltzen dituztenak; arintasun jostalari batez idatziak, batzuetan, eta gizatasunaren muinera jotzen duen dramatismo puntu batez jantziak, besteetan; bizitza oro bezala bakanak eta bitxiak, baina nortasun berezi horren azpilduretan enpatiaren ispilua ere eskaintzen dutenak; adin, ezaugarri eta bizimodu askotako gizon-emakumeak, ez abstraktuak baizik eta, onerako zein txarrerako, leku eta garai zehatz batean suertatu direnak: euskal herriren batean, oraintxe bertan edo atzo goizean.

Maisutasunez idatzitako ipuin-bilduma, egilearen ibilbidean heldutasun eta sakontasunezko marka bat ezarriko duena, eta irakurlearen gogoan hunkidurazko oroitzapen bat utziko duena.

Xabier Mendiguren Elizegi (Beasain, 1964). Filologian lizentziatua eta editorea. Haur eta gazteentzako literaturaz eta antzerkiko lanez gain, helduentzako narratiba idatzi du batik bat: *Hamasei ipuin amodiozko*, *Hamalau*, *Errautsen distira*, *Bihotz gosetien kluba*, *Arima enkoniatuak*, *Bizitza homeopatikoa* ipuin-bildumak, *Bekatuaren itzala*, *Berriro igo nauzu*, *Gure barrioa 1975*, *Uda betiko balitz*, *Elvis hil zen urtean* eleberriak, eta *Nerabearen biluzia*, *Errekarteko koadernoak*, *Arbelaren gainean*, *Egunen harian*, *Paperjalearen dieta* saiakera gisa.



Idazlearekin hitz egiteko: Xabier Mendiguren 943 310267 edo xmendiguren@elkar.com